

Hileta zerbitzuak

Hileta-zerbitzuen jardueraren ezaugarri nagusia espezifikotasuna da, zerbitzuak aldi puntaletan eta larrialdi gisa kontratatzen baitira. Zein gastu handia den sobera ezaguna bada ere, alderdi hori bigarren maila batean geratzen da, une horietako inguruabarrak oso bereziak baitira.

Edozein zerbitzu kontratatzean, kostu handikoa denean bereziki, alde aurretik gastuak zenbatekoak diren jakin nahi izaten dugu, eta hileta-zerbitzuak kontratatzean ere modu berean jokatu behar dugu.

OHIKO GASTUAK

Gasturik ohikoenak honako kontzeptu hauek eragindakoak dira, gizarte-ohituen eta herrien arabera:

- Hilikutxa.
- Errauts-kutxa, hala erabakiz gero.
- Eskelak, etxekoak eta egunkarietakoak.
- Hileta-autoko garraioa.
- Lore-koroa.
- Kudeaketa-gastuak.
- Gorpuaren egokitzapen sanitarioa.
- Beilatokia.
- Zeremonia-zerbitzua.
- Sinadura-mahaia.
- Ehorzketa edo errausketa.

Hala ere, kontuan izan behar dugu kontzeptu horiek ez direla zehatz-zehatzak, zenbait hileta enpresak beste atal batzuetan barne hartzen baitituzte.

EHORZKETA EDO ERRAUSKETA

■ Ehorzketa: tasa hilerri publikoak kokatuta dauden udalek finkatzen dute, eta hilobiaren edo horma hilobiaren kostua erabiltzen den denboraren arabera da.

■ Errausketa: kostua ez da, nahitaez, ehorzketarena baino txikiagoa. Gero eta herri gehiagok dute errausketa-labea; gaur egun, gorantz doan hautabidea da.

HERIOTZA-ASEGURUAK

Joan den mendearren hasieratik, heriotza-aseguruak jendartean zabaldu egin dira eta, gaur egun, aseguruaren artean modalitaterik kontratatuena dira. Aseguru horiek familia izaerakoak dira; izan ere, etxebizitza berean bizi diren guztiak poliza berean barne hartzea izaten da ohikoena.

Bada kalte-ordain moduko modalitate bat ere; kasu horretan, konpainiak ehorzketa gastuetarako kopuru jakin bat ematen dio onuradunari, aseguraturia hiltzen denean. Hala ere, modalitaterik zabalduena ehorzketa-zerbitzuak barne hartzen dituen poliza da.

NOLA JOKATU

Polizaren baldintzak arretaz aztertu behar dira, heriotza-asegurua kontratatzean zein heriotzaren bat gertatzen denean.

Polizarik izan ezean, kontuan izan behar dugu hileta-zerbitzuak kontratatzean arinegi jokatzu gero gastuek gora egin dezaketela nabarmen. Hori dela eta, une gogor horietan lehenetsuna dirua aurrezteak ez dela gauza nabaria izanik ere, komeni da alde aurretik hainbat aurrekontu eskatzea. Aurrekontu horietan, zerbitzu bakoitzak behar bezala zehatuta agertu beharko du.

Ez dugu ahaztu behar faktura eskatu behar dugula eta, informazioa lortzeko edo erreklamazio bat aurkezteko, kontsumitzailearen arretarako doako telefono-zenbakira (900 600 500) dei dezakegula, edo honako hauetara jotzeko aukera dugula:

- Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-bulegoak.
- Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak (KIUB).
- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak.